

**Nik, JESUS M<sup>a</sup> MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

**Honako hau EGIATZATZEN DUT:**

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko abenduaren 12an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

**“4.4.-Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzen 2024ko deialdian aurkeztutako eskaeren bigarren ebazpena onartzea.**

Alkatearen 2024ko abenduaren 12ko proposamenak honela dio:

“ Unai Kortabarria Errastik (Oñatiko Sozioekonomia teknikariak eta batzordeko idazkariak) abenduak 12an egindako txostenean (CSV zkia: ESKU589faca8-82e3-446f-bbce-498716349cf4) honako PROPOSAMENA egin zuela:

Espediente zk.:..... 2024ZDKO0019  
Gaia: Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzak.  
.....  
Sarrera erregistroa: 5473

Jarraian azaltzen dira gai honi lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzen oinarri arautzaileak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak, 2022ko apirilaren 11n, 69. Zb.)

Bigarrena.- Oñatiko Udalak, 2024ko martxoaren 14an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, onartu zuen Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzen 2024ko deialdia. (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2024ko apirilaren 8an, 67. Zb.)

Hirugarrena.- Pertsona langabetuak kontratatzeke dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia kontuan izanda 5473 erregistro zenbakia duen eskaera aztertu da.

**Gertakarien balorazioa.**

Lehenengoa.- Aipatutako eskaera aztertu ondoren jarraian zerrendatzen da dagokion dirulaguntza zenbatekoa:

## ONARTUTAKO DIRULAGUNTZAK

ESKATZAILEA	IFZ	ESP. ZB.	DIRULAGUNTZA				
			LAGUNTZA OINARRIA	JARDUN. %	BH-BH LAGUNTZA	%30 GEHIGARRIA	GUZTIRA
MAIDER BETELU ECEIZA OTRO CB	Y ***6142**	2024ZDKO0 019/5473	1.600€	%100	1.600€	-	1.600€

Bigarrena.- Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela 1 1000.480.241.04.01 2024 (5191) diru atalean.

Horrenbestez, gertakari hauen azalpenak Sozioekonomia batzordean eman ostean, ondorengo **erabaki proposamena** egiten zaio Tokiko Gobernu Batzordeari:

**Lehenengoa.-** Goian aipatutako Pertsona langabetuak kontratatzeko dirulaguntza eskaera onartzea eta 1.600€ko gastua baimentzea 1.1000.480.241.04.01 2024 (5191) diru atalaren eta bere lotespen mailaren kontura.

**Bigarrena.-** Jarraian zerrendatzen den interesdunari ordainketa hau agintzea:

ESKATZAILEA	IFZ	DIRULAGUNTZA
MAIDER BETELU ECEIZA Y OTRO CB	***6142**	1.600 €

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzeko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://oñati.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

**Laugarrena.-** Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

**Bosgarrena.-** Erabaki hau eta Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.”

\*\*\*

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.“

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazi geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua araberak.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZDKO0019-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)